

AURKEZPENA

Gu Unax Elorza, Irune Lopez eta Eider Otamendi gara; "GDI" izeneko taldearen partaideak eta Urretxu Zumarraga Ikastolako bigarren batxilergoko ikasleak. Gure ideia gaur egungo konpas tradizionalak atzean utziko dituen konpas automatikoa, mekanikoa, sortzea da.



Proiektu hau gauzatzeko ideia gure taldeko kide bati, Unax Elorzari, bururatu zitzaion. Batxilergoko lehenengo urtetik, taldeko partaideok Marrazketa Teknikoa izenez ezagutzen den ikasgaia ematen dugu eta bertan konpasaren erabilera oso ohikoa da. Denbora pasa ahala, hirurok hainbat konpas desberdin erabili izan ditugu; bai merkeak eta bai garestiagoak ere, eta azkenean, beti arazo berdinak aurkitu izan ditugu.

Alde batetik, konpasak erabili ahala beraien zehaztasun maila kaltetu egiten da, torlojuak ez direlako hasieran bezain indartsu mantentzen eta askotan marrazkia egiten dugun bitartean neurria aldatzen zaie egiteagatik. Bestalde, neurri zehatzak lortzea ezinbestekoa da marrazketan gauzak ondo atera daitezen, milimetro bat gaizki jartzean marrazkia ez ateratzeko arriskua baitago eta konpas normaletan horrelako zehaztasun maila lortzea ez da batere erraza.

Arazo hauei konponbidea bilatzeko asmoarekin, gure taldearen izen berdina duen proiektua sortu genuen:GDI. Gure asmoa, neurriak automatikoki jartzeko aukera ematen duen eta neurri zehatzak eskainiz, marrazkia, hau da, zirkunferentzia, automatikoki egiten duen konpasa sortzea da, eta ideia hau aurrea eramatea erabaki dugu. Marrazketako irakasleari eta klaseari gure ideia aurkeztu ondoren, oso aproposa dela eta beraiak erabiliko zutela esan digute, eta geroztik aurrera bertan lanean ibili gara gailu hau sortzeko.